



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

2020/147 ALKATE DEKRETUA

Joan den urtarrilaren 30ean Osasunaren Mundu Erakundeak COVID-19 koronabirusaren egoera nazioarteko garrantzia duen osasun publikoko larrialdi bat zela adierazi zuenetik, administrazio publiko eskudunek hainbat neurri hartu dituzte herritarren osasuna eta segurtasuna babesteko, gaixotasunaren progresioa geldiarazteko eta osasun publikoaren sistema indartzeko. Zehazki, COVID-19ren bilakaerak sortutako egoeraren ondorioz, osasun publikoko agintariak ohiz kanpoko euste-neurriak hartu behar izan dituzte, egungo euste-egoera indartuaren barruan, Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Kontseiluaren esparruan koordinatuta.

Eusko Jaurlaritzak larrialdi sanitarioa ezarri du, eta Euskadiko Babes Zibileko Plana martxan jarri du. Plan horrek ahalmena ematen dio Eusko Jaurlaritzari herritarrak isolatzeko, haien mugimenduak mugatzeko, arrisku-eremuetatik ebakutzeko eta baita beren etxeetan konfinatzeko ere.

Espainiar Gobernuak, "estado de alarma" egoera deklaratu du eta Errege Dekretu bidez COVID-19ak sortutako osasun krisiari aurre egiteko kudeaketa arautzen du "estado de alarma" egoera deklaratzear gain. Dekretu hau indarrean sartuko da Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean, salbu bere 6. Artikulua. Hau, 2020ko martxoaren 16an goizeko 8:00eta indarrean sartuko da eta bertan arautzen da zirkulazio askearen eskubidearen murriztapena.

"Larrialdiari Aurregiteko Bidea" planaren Aholku Batzordeak hartu dituen neurriak kontutan izanik

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan eta Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 203. artikuluan eta hurrengoetan jasotako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

LEHENENGOA: Honako jarduerak bertan behera uztea eta ondorioz hauek burutzen diren instalazioak ixtea:

- Kirol instalazioak
- Joko-lokalak
- Txokoak
- Elkarte gastronomikoak
- Ostalaritza
- Otoi egiteko zentroak

BIGARRENGOA: Pertsona konzentrazioa dauden lekuetan metro eta erdiko gutxieneko distantzia bermatzeko neurriak hartzea.

IDAZKARIA

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran, 2020ko martxoaren 14an



Igor Zapirain Lizarribar